



**Hiztegitxo**


**Hobeto irakurtzen laguntzeko**




<b>ahantzura</b> oroitzapena galtzea	«Beldurra ematen zioen “amaiera” hitzak, behin betiko agurrak, <b>ahantzurak</b> , heriotza bide zen ezerez funtsik gabea.»	129
<b>akidura</b> nekadura	«...ikastera Londresera Joan zenean, inolako nostalgiarik gabe alde egin zuen, etsipenaren eta <b>akiduraren</b> mugan zegoen halako alaitasun batez.»	17
<b>akituta</b> nekatuta, leher eginda	«— Jainkoarren —hasperen egin zuen amak, <b>akituta</b> .»	151
<b>aldaka</b> mehaka, gerri ingurua	«...leihatilako andreak erori eta <b>aldaka</b> hautsi zuen emakume edadetu baten senitartekoak artatu berri zituen.»	130
<b>aldiri</b> eskualdea, hiriburu ondoa	«Erietxe Nagusia <b>aldirietan</b> zegoen, 60ko eta 70eko hamarraldietako desarrollismoaren gunean.»	129
<b>alditxartu</b> txarto jarri, makalaldia	« <b>Alditxartu</b> egin zen.»	126
<b>algara</b> barre handia	«Ergel haien <b>barre algarak</b> .»	167
<b>amarru</b> engainua, maltzurkeria	«Ez zekien <b>amarru</b> baten biktima ziren, edo haiek berak ziren amarrua.»	57
<b>amorfo</b> forma gabea, traketsa	«Kanpotik itsusia zen, <b>amorfoa</b> eta zaharkitua.»	39
<b>apoplejia</b> lohadarrak ezinduta, mugitu ezin	«Ama histeriak jota, negarrez, intzirika, dardarka, <b>apoplejia</b> emateko zorian bezala.»	169
<b>arerio</b> etsaia, aurkaria	«Plaza gurutzatu zuen; <b>arerioaren</b> begirada bizkarrean iltzatuta sentitu zuen.»	127
<b>artatu</b> lagundu, zaindu	«...leihatilako andreak erori eta aldaka hautsi zuen emakume edadetu baten senitartekoak <b>artatu</b> berri zituen.»	130
<b>artega</b> urduri, lasaitu ezinik	«Victoria <b>artega</b> zegoen oraindik.»	132
<b>artegatasun</b> urduritasuna, larritasuna	«Besteen saminak sekulako atsekabea eta <b>artegatasuna</b> eragiten zion.»	87
<b>asaldura</b> aztoramena, inpresioa	«Jairoren irribarre misteriotsua. Bere <b>asaldura</b> .»	204
<b>aski</b> nahikoa	«Ez zegoen hitz guztiak zertan esan, laztura izugarri hura <b>aski</b> baitzen egin litekeen minik handiena egiteko...»	55
<b>astinaldi</b> pasada, jipoia bezalakoa	«...oraindik gainditu ez zuen <b>astinaldiaren</b> ondoren.»	7
<b>atekabe</b> nahigabea	«Ideia hori bere burutik baztertu zuen, amorruez eta <b>atekabez</b> , eta oinez jarraitu zuen.»	130
<b>atxiki</b> itsatsi, lotu	«Berak pobrezia <b>atxikitzen</b> zion soinu hura, zehazki zergatik ez zekien arren.»	52
<b>ausiki</b> haginkada, horzkada	«Kontzientziaren <b>ausikia</b> ?»	187
<b>azpil</b> erretilua, bandeja	«Amaren gelara sartu zen, <b>azpilari</b> bi eskuekin eutsiz...»	148
<b>bafa egin</b> arnasa indarrez bota	« <b>Bafa egin</b> zuen.»	99
<b>bafada</b> putzaldia	« <b>Bafada</b> batez askatu zuen biriketean harrapatuta zuen airea.»	8
<b>begi-nini</b> begiaren erdiko biribiltxo	«— Eta ez al da, bada, bihozgabea alaba galtzea? — <b>begi-ninietan</b> hezetasunaren distira sumatu zitzaion.»	51
<b>begi-zuloak eduki</b> neke aurpegia, lo gutxi egin	« <b>Begi-zuloak</b> zituen oraindik, eta larrua zargalduta.»	185




<b>beila</b> gaubeila, norbait gauean jagotea	«...argitasunaren eraginez, nahiz eta argia nahiko zurbila izan, <b>beilakoa</b> bezala...»	151
<b>bekozko</b> begi-ilun, kopetilun, haserre bezala	«Zauriak geratzen ziren, besterik ez. Lidia ez zen irteten. <b>Bekozkoa</b> jarri zuen.»	66
<b>bihozgabe</b> gupidagabea, krudela	«—Eta ez al da, bada, <b>bihozgabea</b> alaba galtzea? —begi-ninietan hezetasunaren distira sumatu zitzaien.»	51
<b>burtzoratu</b> burua galdu, zorabiatu	«Victoria atzerantz etzan zen, <b>burtzoratuta</b> .»	81
<b>burujabetasun</b> independentzia	«Gogor borrokatu zen bere <b>burujabetasunaren</b> alde.»	118
<b>dendoste</b> dendaren atzealdea	«Atzean hutsarte bat zegoen, botika eta <b>dendostea</b> lotzen zituena.»	122
<b>desarrollismo</b> garapen basatia	«Erietxe Nagusia aldirietan zegoen, 60ko eta 70eko hamarraldietako <b>desarrollismoaren</b> gunean.»	129
<b>dilindan --</b> zintzilik, eskegita	«Orain, ordea, Anaren mamua beren bizitzen gainean zebilela... Tira, bera ez zen betiko Joan.»	40
<b>dir-dir</b> diz-diz egiten, argiz beterik	«Joiroren begiak <b>dir-dir</b> zeuden.»	180
<b>doi-doi</b> ozta-ozta, justu-justu	«Sekulako lanak ematen zizkion edozertan orduka jardun eta bizibidea <b>doi-doi</b> ateratzeak.»	31
<b>doluminak</b> atsekabea edo samina adierazi	«—Eman nire <b>doluminak</b> gurasoei!»	127
<b>egiati</b> zintzo, xalo	«—Ez dakit —esan zion <b>egiati</b> .»	9
<b>ehortzi</b> lurperatu, hilobiratu	«Guraso batek ez luke inoiz seme-alabarik <b>ehortzi</b> behar.»	24
<b>erdiratuta</b> min handiz, oso sentituta	«Negarrez ari zen ordurako, <b>erdiratuta</b> , inoiz negar egin izan ez zuen moduan...»	11
<b>erietxe</b> ospitalea	« <b>Erietxe</b> Nagusia aldirietan zegoen, 60ko eta 70eko hamarraldietako <b>desarrollismoaren</b> gunean.»	129
<b>ernaldu</b> sortu, bizitza eman	«—Hobe genuke zure amak zu <b>ernaldu</b> zituen gatean kondoia erabili izan balu —bota zion, bere etsipenaren neurriko garraztasunez.»	162
<b>errefusatu</b> uko egin, ezetz esan	« <b>Errefusatu</b> egin zuen.»	98
<b>erremin</b> sentimendu mingarria	«Dagoeneko ez baita mespretxua edo <b>erremin</b> soil bat.»	111
<b>errenditu</b> amore eman, etsi	«Segundo batzuek arnasari eusten ikusi zuen, eta gero, berriz, <b>amore ematen</b> eta errenditzen.»	47
<b>erresumin</b> haserre modukoa	«Elkarrengandik aldentzea besterik, beren arteko distantzia eta <b>erresumina</b> justifikatzeko aitzakia bati jarraituz...»	47
<b>erretolika</b> bronka, <i>sermoia</i>	«Seguru asko, guraso gehienak alabak hartu, eserarazi eta sekulako <b>erretolika</b> botako zieten.»	127
<b>errezela</b> gortina	«...jangelako <b>errezelak</b> aldatzeko eskailera batera igota ibili zela-eta.»	130
<b>erronka</b> desafioa	«...zilarrezko argazkia markotik begira, amaren zentzuari <b>erronka</b> joz.»	152
<b>estigma</b> marka betikoa, ezaugarria	«Baina bi ezkontza huts egin zituen ordurako (...) eta horrek ezaren <b>estigma</b> erakarri zion.»	9
<b>gainjartze</b> metatzea, pilatzea	«Marken ohiko <b>gainjartzea</b> ...»	121




<b>gaitzespen</b> ukapena	«Isilunea <b>gaitzespenezkoa</b> , laburra, sentipenez betea izan zen.»	67
<b>galbanizatu</b>	«Aita egongelaren erdian zegoen, geldirik, zer egin edo nora jo jakingo ez balu bezala, eta orain alabak <b>galbanizatzen</b> zuen arretaz jabetu gabe.»	16
<b>ganbara</b> kasko, baldoki, burugain	«Aizu, ez zarete umetxoak! Jairok ongi jantzita dauka <b>ganbara</b> ...»	143
<b>garondo</b> kokota	«Ilea <b>garondoan</b> jasota zeraman.»	123
<b>garraztasunez</b> erreta, mikaztuta	«—Hobe genuke zure amak zu ernaldu zituen gatean kondoa erabili izan balu —bota zion, bere etsipenaren neurriko <b>garraztasunez</b> .»	162
<b>giltzatak</b> giltzen multzoa	« <b>Giltzatak</b> oa hartu, bira egin eta haren izotzezko begiekin topo eginik izutu zen arte.»	115
<b>gotortu</b> harresi batekin itxi	«...bihotza eta adimena <b>gotortu</b> egin zituen, eta (...) lehenbailehen amaitzeko eta ziztu batean handik alde egiteko gogoia besterik ez zuen sentitu.»	130
<b>grina</b> pasioa, nahi bizia	«Bere baitan gorde zuen bizitzeko <b>grina</b> guztia.»	63
<b>halabehar</b> patua, zoria	« <b>Halabeharrak</b> zorigaitzezko egoera sail batekin bat egiten zuen gero.»	105
<b>hamaikagarrenez</b> berriz ere, etengabe	« <b>Hamaikagarrenez</b> orduari begiratu eta mihia klaskatu zuen, lehertu beharrean.»	93
<b>har</b> zizarea, zomorroa	«—Zergatik deitu ote dizut...? —Zure kontzientziako <b>harra</b> bezala naizelako...»	34
<b>harrotutako</b> puztutakoa, altxatutakoa	«Auto bat hurbil-hurbiletik igaro zen, eta haren lastertasunak eta hurbiltasunak <b>harrotutako</b> haizeak zorabioa eragin zien.»	12
<b>hasperen</b> suspirioka, zizpuruka	«Sabelalde puztuenekoak astun mugitzen ziren, <b>hasperenka</b> .»	131
<b>hazpegiak</b> beso-zangoak, lohadarrak	«Beltzarana zen, <b>hazpegi</b> markatuak zituen, eta sudur handia, aknea eta pikorrak bi masailetan.»	69
<b>herresta</b> narras, tatarrez, arrastaka	«...baita zerbaitek <b>herrestan</b> zeramalako ere.»	135
<b>hezeztu ?</b> gurutzatu	«Bat edo bi segundu amaigabe igaro ziren. Bien begiradak <b>hezeztu</b> ziren.»	135
<b>hilotz</b> gorpu, hilda	«Lidiak <b>hilotz</b> ibiltari bat gogorarazten zion orain.»	88
<b>hutsarte</b> espazioa, tartea	«Atzean <b>hutsarte</b> bat zegoen, botika eta dendostea lotzen zituena.»	122
<b>igarri</b> antzeman	«Emakume batzuek begiratu egiten zioten, bera ere haurdun ote zegoen <b>igarri</b> nahian.»	131
<b>iltzatu</b> finkatu, tinko geratu	«Begiak soro horixketan <b>iltzatu</b> zituen.»	10
<b>imintzio</b> keinua	«Hala ere, ez zuen azpila eramateko <b>imintziorik</b> egin.»	153
<b>intzirika</b> garrasika, txilioka, grilistuka	«Ama <b>intzirika</b> entzun zuen, eta aita hura kontsolatu nahian.»	58
<b>irmotasun</b> tinkotasuna, indarra	«Sentitzen zuen, baina ez zion erasten. Horrek segurtasun eta <b>irmotasun</b> gehiago eman zion.»	53
<b>iskanbila</b> istilua, gatazkatxo	« <b>Iskanbila</b> atzean gelditu zen.»	167
<b>itsumustuka</b> ikusi barik, ilunetan ukituaz	«Logelan sartu orduko, atea itxi zuen eta, argia piztu aurretik, <b>itsumustuka</b> , topatu zuen lehenengo gauza...»	59



<b>jaramon egin</b> kasu egin	«—Bai, badakit —ez zion <b>jaramonik egin</b> , eta haren alboan eseri zen, azpila magalean jarrita.»	151
<b>kantoia</b> kale ertza	«Kolare gorriko motorra <b>kantoitik</b> agertu eta bera zain zegoen etxera hurbiltzen ikusi zuen.»	95
<b>karranka</b> soinu bizia, desatsegina, metalikoa	«...iratzargailuak sekulako <b>karranka</b> ateratzen zuenez, maindireen azpian ezkutatu zuen...»	157
<b>katarsi</b> garbiketa, arazketa	«Victoriak saminezko beste <b>katarsi</b> bat eragin zuen.»	13
<b>katatoniko</b> zentzugabea, kontrola galduta	«Histeriatik egoera <b>katatonikora</b> igarotzen zen.»	172
<b>kateatu</b> katez lotu	«Ez dut nire burua <b>kateatu</b> nahi.»	41
<b>katramilatu</b> endredatu, korapilatu	«Urruntasuna eragozpen handia dela pentsatuko zuela uste dut, edo agian ez ninduen <b>katramilatu</b> nahi izan.»	76
<b>klaskatu</b> mihiarekin zarata egin	«Hamaikagarrenez orduari begiratu eta mihia <b>klaskatu</b> zuen, lehertu beharrean.»	93
<b>kopeta</b> bekoki	«Gero, zutitu, <b>kopetan</b> musu eman eta jangelatik irten zen.»	202
<b>kutsu</b> aztarna, arrastoa	«Munduko gauzarik naturalena balitz bezala. Inolako ironia edo gutxiespen <b>kutsurik</b> gabe. Maitasunagatik negar egitea.»	78
<b>lardaskeria</b> narraskeria, dena aldrebes	«Abortatu egin zuen. Anak abortatu egin zuen. <b>Lardaskeria</b> egin zioten eta hil egin zen.»	53
<b>larderia</b> izua, beldurra	«Eta <b>larderia</b> gehiagorik ez.»	204
<b>laztura</b> zakartasuna, gogortasuna	«Ez zegoen hitz guztiak zertan esan, <b>laztura</b> izugarri hura aski baitzen egin litekeen minik handiena egiteko...»	55
<b>likits</b> zikina, lizuna	«Kaka zaharra! Ume <b>likits</b> lizunak!»	163
<b>lirdinga</b> likina, lerdea, biskositatea	«Baina inguruko etxeak besterik ez ziren ikusten handik, teilatuak; teila lurkarak, hezetasunez edo <b>lirdingaz</b> , lizunez (...) zikinduak.»	25
<b>lizun</b> mohoa	«Baina inguruko etxeak besterik ez ziren ikusten handik, teilatuak; teila lurkarak, hezetasunez edo lirdingaz, <b>lizunez</b> (...) zikinduak.»	25
<b>lur jota</b> deprimituta	«Victoriak haien <b>samin</b> guztia sumatzen zuen eta lur jota sentiarazten zuen horrek...»	49
<b>lurkara</b> lur kolorekoa	«Baina inguruko etxeak besterik ez ziren ikusten handik, teilatuak; teila <b>lurkarak</b> , hezetasunez edo lirdingaz, lizunez (...) zikinduak.»	25
<b>magal</b> altzoa, sabel aldea	«—Bai, badakit —ez zion jaramonik egin, eta haren alboan eseri zen, azpila <b>magalean</b> jarrita.»	151
<b>maindire</b> mihisea, izara	«...iratzargailuak sekulako karranka ateratzen zuenez, <b>maindireen</b> azpian ezkutatu zuen...»	157
<b>mantso</b> lasai, patxadatsu	«...bota zuen <b>mantso</b> , urrutira begira.»	183
<b>mesfidati</b> fidagaitz, errezeloz	«—Nor zara? —galdetu zion lehengoak, <b>mesfidati</b> .»	67
<b>mespretxu</b> gutxiespena	«Dagoeneko ez baita <b>mespretxua</b> edo erremin soil bat...»	111
<b>minbera</b> sentibera, minerako sentikor	« <b>Minbera</b> zuen dena: burmuina, gorputza, arima, zentsuak...»	10
<b>mortu</b> hutsik	«Inguru guztia <b>mortu</b> zegoen.»	158



<b>muturtu</b> haserretu, muzindu	«Hatza zuzen-zuzen jarrita mehatxuka aritzen zitzaion, eta <b>muturtu</b> egiten zen, baina ez denbora luzerako.»	158
<b>nostalgia</b> iraganeke uneak gogoan	«...ikastera Londresera Joan zenean, inolako <b>nostalgia</b> rik gabe alde egin zuen, etsipenaren eta akiduraren mugan zegoen halako alaitasun batez.»	17
<b>oihuaren garratza</b> oihu hain zakarra edo latza	« <b>Oihuaren garratzak</b> esnatu zuen.»	169
<b>oldar</b> inpetua, bultzada	«Esaldiak eta errua, behin eta berriz <b>oldar</b> betean.»	146
<b>ordoki</b> lautada, ordeka, leku zelaia	«...jaka lotu zuen, <b>ordokitik</b> iristen zen haizetxo leun haren trabatik babesteko.»	158
<b>pairamen</b> sufirimendua	«Danielentzat, ordeka, <b>pairamenez</b> , eraman beharrezko zama bat zen.»	73
<b>patu</b> zoria, zortea, destinoa	«Eta indarra bizitza eta <b>patua</b> erabakitzeke ahalmena da.»	183
<b>pikor</b> garua, granoa	«Beltzarana zen, hazpegi markatuak zituen, eta sudur handia, aknea eta <b>pikorrak</b> bi masailetan.»	69
<b>pospolo</b> sua piztekoa	«Terminal txikia begiratu zuen, <b>pospolo</b> kutxa ematen zuen.»	203
<b>promiskuitate</b> sexua askorekin	« <b>Promiskuitatearen</b> ideia, han, ameskeria irudikatzen zitzaion.»	133
<b>samin</b> atsekabea, mindura	«Victoriak haien <b>samin</b> guztia sumatzen zuen eta lur jota sentiarazten zuen horrek...»	49
<b>samin</b> mingots, gozogabe	«Victoriak <b>saminezko</b> beste katarsi bat eragin zuen.»	13
<b>sarkastiko</b> garratza, ironikoa	«Ez izan <b>sarkastikoa</b> . Ez dut uste halakorik merezi dudarik.»	51
<b>sastakai</b> puinala	«Esaldi haiek <b>sastakaiak</b> bailiran iltzatuta zeuzkan bere gogoan.»	117
<b>sorgortuta</b> gogortuta bezala, mugitu ezinik	«Baina hantxe egon zen, mugaz beste aldean, <b>sorgortuta</b> , baina irmo.»	57
<b>suetena</b> menia, tregoa	«Ez zegoen bakerik bere baitako gerran, baina bai <b>suetena</b> .»	105
<b>sumin</b> amorrua	«Eta Victoriak <b>suminezko</b> olatu bat sentitu zuen bere baitan.»	96
<b>sutsu</b> piztuta, suminduta	«...ezin gehiago jasanik, itsututa, urduri eta <b>sutsu</b> , amak atzetik besarkatu zuen, eta buruan musu bat eman zion.»	49
<b>tandem</b> bikotea	«Vicky serioa eta Ana eroa. <b>Tandem</b> moduko bat zen. Tandem zoragarri bat.»	20
<b>tematu</b> egoskortu, enpeñatu	«—Ni etxeko ardi beltza naiz, gogoratzen? Ni artegira itzulazten <b>tematuta</b> daude.»	141
<b>tranpal</b> solairua	«Emakumeak ez zuen aterik itxi Victoria hurrengo <b>tranpalera</b> iritsi zen arte.»	92
<b>trumilka</b> piloan, kolpean bezala	«Iragana agertu zen, bat-batean, bere garunean <b>trumilka</b> .»	117
<b>txitean pitean</b> sarri, tarte laburretan	«Niri <b>txitean pitean</b> aldatzen didate...»	123
<b>ukabil</b> esku itxia	«Nire ahizpa zen, Jainkoarren —esan zuen, <b>ukabilak</b> estututa, bere onetik ez ateratzeko eta pazientzia ez galtzeko ahalegina eginez.»	53
<b>ukatu</b> ezeztatu, ezetz esan	«—Orduan, izan liteke mediku batek nire lagunari pilula <b>ukatu</b> izana?»	134



<b>urdanga</b> emagaldua, puta	« <b>Urdanga</b> , emagaldua zela esan zion eta...»	191
<b>xalotasun</b> adeitasuna, apaltasuna	«Bat-batean doinua aldatu zuen, erabateko <b>xalotasunez</b> galdera egiteko.»	126
<b>xehe</b> fina	«Eta <b>xehea</b> , profesionala, gainera.»	124
<b>xerlo</b> ile luzeko muturtxoa, solte	«...ilea erabat gorria, eta bi <b>xerlo</b> hori alboetan, bandera moduan...»	147
<b>zaharmin</b> edaria galtzea, ozpintzea	«Gustu on <b>zaharminerako</b> joera.»	121
<b>zapuztu</b> muturtu, purrustari	«Londreseko lotura egiteko denbora emango zion baina, hala ere, <b>zapuztuta</b> zegoen.»	203
<b>zargaldu</b> zainilduta, leuntasun gabe	«Begi-zuloak zituen oraindik, eta larrua <b>zargalduta</b> .»	185
<b>zirimola</b> zurrunbiloa	«Eta ez zituen bere ezpainak Jairoren ezpainetatik askatu, <b>zirimola</b> hark mendean harrapatuta zeukan.»	206
<b>zoko</b> bazterra, txokoa	«Bere arimaren <b>zoko</b> iluneko mamuak.»	204
<b>zurbil</b> margula, distira gutxikoa	«...argitasunaren eraginez, nahiz eta argia nahiko <b>zurbila</b> izan, beilakoa bezala...»	151
<b>zurrun</b> tente, gogor bezala	«Mutila <b>zurrun</b> gelditu zen.»	97
<b>zurrupe</b> zurrustada	«Koilara hartu eta lehenengo <b>zurrupe</b> ahora eraman zain egon zen.»	153
<b>zurruitera joan</b> edatera, poteatzera	«Ez zen joan <b>zurruitera</b> edo ongi pasatzera, lagunekin elkartzera edo ahaztera.»	166
<b>zurt</b> defentsiban, erne	« <b>Zurt</b> , etangabe zure burua babesten.»	116
<b>zutoihal</b> estandartea	«...bi xerlo hori alboetan, bandera moduan, <b>zutoihala</b> balitz bezala.»	147